



## **Trebakuntza 2009/09: KATAFORAK ETA ANAFORAK**

Askotan, informazio garrantzitsua asko atzeratzen dugu, eta horrek mezua behar bezala ez ulertzea dakar. Aditzarekin gertatzen da askotan, baina ez bakarrik aditzarekin. Zerrendak ematen ditugunean, adibidez, arazo hori sortzen zaigu.

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### **OHIKO AKATSAK**

1. *\*Alkatea, idazkaria, Hirigintzako zinegotzia, langileen ordezkaria eta IVAPeko ordezkaria izango dira epaimahaikideak.*
2. *\* Gai-zerrendak idatzi, aktak jaso, erreklamazioei erantzun eta jakinarazpenak bidali, horra zure lanpostuaren zereginetako batzuk.*
3. *\* Ondoko hauek dira gure langaiak: bakarkako interesen gainetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.*
4. *\* Gainera, alkatea oportetan izango da datorren hilean. **Hau guztia** kontuan izanda, hurrengo bilera aurreratzea erabaki dugu.*
5. *\* Udaletxean batzorde bat sortu da. **Aipatutako** batzorde horren lana...*
6. *\* ..... Arrazoi **hauek** direla medio, erabakia datorren astean hartzea pentsatu dugu.*
7. *\* Euria iragarri dute biharko. **Hau dela eta**, plazan egitekoa zen kontzertua kiroldegian egin beharko da.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



## ZUZENKETAK ETA AZALPENA

### \* ZERRENDETAN

Zerrenda bat eman behar badugu, kataforak erabiltzea komeni da: **HAUEK, HONAKO HAUEK...** Baina ez gaztelaniatik hartutako **ONDOKO HAUEK, HURRENGO HAU, JARRAIAN DATOZEN HAUEK...**

### \*AURREZ AIPATUTAKO ELEMENTU BATEN ERREFERENTZIA

Aurrez aipatu dugun zerbaiti erreferentzia egiteko, **HORI, HORIEK...**erabiliko dugu, eta ez HAU, HAUEK...

**AIPATU** aditza ere beharrik gabe erabiltzen dugu maiz. Gogoratu euskaraz erakusleak dauzkagula aurreko zerbaiten edo norbaiten erreferentzia egiteko. Bestela, erakuslerik gabe ere joan daiteke: *Udaletxean batzorde bat sortu da. **Batzordearen** lana...*

1. Ad. **Honako hauek** izango dira epaimahaikideak: alkatea, idazkaria, Hirigintzako zinegotzia, langileen ordezkaria eta IVAPeko ordezkaria.

Ad. **Honako hauek** izango dira epaimahaikideak  
**Hona hemen** epaimahaikideak:

- Alkatea
- Idazkaria
- Hirigintzako zinegotzia
- Langileen ordezkaria
- IVAPeko ordezkaria

2. Ad. **Hauexek / honako hauek** dira zure lanpostuaren zereginetako batzuk: gai-zerrendak idatzi, aktak jaso, erreklamazioei erantzun eta jakinarazpenak bidali.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)



Ad. **Hauexek / honako hauek** dira zure lanpostuaren zereginetako batzuk / **Hona hemen** zure lanpostuaren zereginetako batzuk:

- Gai-zerrendak idatzi
- Aktak jaso
- Erreklamazioei erantzun
- Jakinarazpenak bidali

3. Ad. **Hauexek** dira gure langaiak: bakarkako interesen gaintetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.

Ad. **Hauexek** dira gure langaiak / **Hona hemen** gure langaiak / **Arlo hauek** landuko ditugu:

- Bakarkako interesen gaintetik arazoaren ikuspen globala defendatzea
- Langileriaren batasunaren aldeko lana egitea
- Kalitatezko informazioa ematea
- Gauzak era demokratikoaren bitartez egitea

4. Ad. Gainera, alkatea oporretan izango da datorren hilean. **Hori guztia** kontuan izanda, hurrengo bilera aurreratzea erabaki dugu.

5. Ad. Udaletxean batzorde bat sortu da. **Batzorde horren** lana...

6. Ad. .... Arrazoi **horiek** direla medio, erabakia datorren astean hartzea pentsatu dugu.

7. Ad. Euria iragarri dute biharko. **Hori dela eta**, plazan egitekoa zen kontzertua kiroldegian egin beharko da.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

#### Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)